


## Aurkibidea

Editoriala	2
LOMCE	3
Gaur eguneko egoera	4
Lan hitzarmena	5
Haurreskolak Partzuergoa 10 urte	6
Material katalogoa	8
Lan osasuna / Formakuntza 2013-2014	9
Hezkidetza	10
Giza mugimenduak	11
Altxorraren bila	12

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOAK LANGILEOK ALDE BATETIK BESTERA, BIDAI AGENTZIA AL DA? EZ ZORATU!



Haurreskolak  
publikoak,  
doakoak eta  
unibertsalak



# 2013-2014 ikasturtea hasi den honetan, aurrekoaren ibilbide labur bat egin nahi dugu, gaur egungo egoera iazkoaren jarraipena baita.

**2012ko** irailean Raxoiren erreforma berria buruan genuela hasi genuen ikasturtea. Egoera berria zen eta lan hitzarmena galtzea ekar zitekeen. Une hartan ere matrikulazioaren jaitsiera nabarmena egon zen eta argi geneukan egoera aldatu ezean, beheraka jarraituko zuela. Azken finean, Haurreskolak Partzuergoa oso garestia da. Egunetik egunera familiek dituzten beharren aurrean gero eta urrunago dagoen zerbitzua da, ezin baitute hainbeste diru ordaindu.

Buru-belarri hasi ginen lanean eta ikasturtean zehar bai Haurreskolak Partzuergoari zein Zuzendaritza Batzordeari matrikulazioari buruz landutako gure proposamenak helarazi genizkien. Horrez gain, prentsara zuzendu ginen idazkien bitartez eta unean uneko gaietan beharrezkoak izan ziren atak joaz, ahal izan genituen bide guztiak jorratu genituen, matrikulazioen beherako tendentzia ekidin nahian. Badakigu Haurreskolak Partzuergoak eskainitako zerbitzua doakoa izanez gero, itxarote-zerrenda luzeak egongo zirela, baina doakoa izatetik urrun zegoenez, errealitateari aurre egin eta kuoten birmoldaketa desberdinak proposatu genituen beste gauza askoren artean.

**Ordezkoen araudiaren negoziazioan ere esfortzu handiak egin genituen**, zenbait gai orain aplikatzen direnak arauen artean jasotzeko, proposamen berriei tokia egiteko eta lurraldeen banaketa zonaldeen bitartez egiteko, besteak beste. Lan asko aurreratu arren, zenbait gai garrantzitsutan ez genuen adostasunik lortu, beraz, **oraingoz behintzat, alde batera utzita dago prozesua eta lehen bezala jarraitzen dugu.**

Aurtengo ikasturtean ere mahai gainean gai garrantzitsu asko dauzkagu: **lan hitzarmen berriaren negoziazioa**, ordezkoen araudiaren negoziazioaren jarraipena, lekualdatze lehiaketa martxan jarri, matrikulazioaren jaitsiera ekiditeko neurriak bultzatu... Ikusten duzueenez, lan andana daukagu aurretik, baina aurrera eramateko ilusioa ere bai.

Bestalde, 2014ko maiatzaren 16 eta 17an kongresua izango dugu, gure lema: "GEHIENGO SOZIALAREKIN, IRAKASKUNTZAN STEE-EILAS" izango da. Prozesu honetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, herrialde bileren bitartez ekarpenak eginez eta baita ikasturtean zehar egingo diren kontseilu nazionalen bitartez ere.

Gogorarazi nahi dizuegu STEE-EILAS sindikatuaren helburua dela, **Haurreskolak Partzuergoa PUBLIKO, DOAKO ETA UNIBERTSALA** izatea duela helburu. Horretan ari gara eta horretan jarraituko dugu. Gizarte honetako partaide garen heinean kalitatezko zerbitzu publikoen defentsan. ●



# ...eta LOMCE-ri buruz zer berri?

Aurreikusten zen legez, Wert ministroaren legea aurrera doa, PPren gehiengo absolutuaz eta nagusikeriaz eta beste talde batzuen laguntzaz baliatuz. Gero eta argiago dugu gizarte osoaren, eta bereziki hezkuntza komunitatearen esku dagoela LOMCE-ri erantzun egokia ematea.

**Berririk** onena, berririk eza. Hala dio esaera zaharrak, baina ez dugu uste hau dela kasua, batez ere berriak badaudelako, nahiz eta lehen baino gutxiago agertu medioetan: LOMCEk erdi isilpean jarraitzen du bere bidea eta aurkitutako oztopoek ez dute geldiarazi.

Azken hilabeteetan izandako prozesu parlamentarioan, PP-k legearen kontra zegoen beste partidu guztien batasuna apurtzea lortu du eta talde batzuekin hainbat zuzenketa onartu ditu. Gehienak makillaje hutsa dira, baina UPyD taldearekin adostu diren 13 emendakinen artean dago eragin handiena izan dezakeena: ikasleek gaztelaniaz ikasteko eskubidea bermatzeaz gain, hizkuntz hau estatu osoan irakasteko komunikazio-hizkuntza izango dela baieztatzen duelako.

Beste aldetik, PSOE, CiU, PNV eta Izquierda Plural-ek uztailan adostu zuten konpromisoa berretsi dute: ahal duten bezain pronto lege hau indargabetuko dutela.

Argi dago prozesu honetan legea ez dela leundu, gogortu baizik. Gainera, PP-k bere "talanteaz" harrotu ahal da, nahi izan duten partiduek aldaketak sartu dituztela esanez.

Beste aldetik, hainbat errekurtso judicial aurkeztu edo ohartarazi dira LOMCE edo barruan dauden atal batzuen kontra. Sexuaren arabera ikasleak baztertzten dituzten ikastetxei diru-laguntza bermatzea, adibidez, Europar Batzordean salatu dute eta auzitegi konstituzionalera eraman nahi dute legea aprobaturaz gero.

Edozein kasutan, inposatutako lege honen kontra borrokatzeko ez dugu uste inposatzaileek erabiltzen dituzten tresnak, hau da, parlamentarioa eta judiciala, izango direnik baliotsuenak. Bide hauek erabiltzen dituztenei mesprezua egin barik, bidezkoak eta beha-



rezkoak direlako, afektatuko enrantzun zuzena garrantzitsuagoa izango delakoan gaude.

Ikasleen, gurasoen eta irakaskuntzako sektore guztietako langileen ahotsak jarraitu behar dira entzuten foro guztietan. Kanean, udal eta auzoetan, ikastetxeetako klaustro eta kontseiluetan, manifestazio eta kontzentrazioetan

Argi izan behar dugu LOMCEk, daraman zama atzerakoia, zentralizatzailea, baztertzatzailea eta merkantilistarekin, gure hezkuntzaren egoerari itzelezko atzerantzko bultzada emango diola. Orain LOMCEri ez! esateko mugitzen jarraitu behar dugu, ahaztu gabe hemendik gutxira agian intsumisioaren olatua prestatzen hasi beharko dugula. Asko da jokoan duguna, ez diegu eskuindar hauei nahi dutena egiten utziko! •



Larunbata Urriak 12 LOMCEri EZ! EUSKAL HERRIAN GURE HEZKUNTZA! lelopean egindako manifestazioari izugarritzko erantzuna eman zion euskal jendarteak. Milaka pertsona elkartu ginen kalean lege atzerakoi honi ezezko borobil bat emateko. ZORIONAK DENOI! Hezkuntza munduko eragile anitzek egindako deialdia arrakastatsua izan zen eta bide horretan aurrera egin behar dugula uste dugu aurrerantzean ere.

Denon parte hartzea eta mobilizazioa beharrezkoak izango dira LOMCE-a aplika ez dadin.

# Egungo egoera



2012ko uztailan Raxoiren lan erreformaren ondorioz, gure lan hitzarmenaren ultraktibitateak 2013ko uztailaren 7ra arteko epea zuela jakin izan genuen. Akordio batera heltzea beharrezkoa zen, geneukan lan hitzarmena indargabetuta geratuko litzatekeelako eta horren ondorioz, langileen estatutura pasa gintezkeelako.

Aurreko ikasturtetik matrikulazioak zeharo kezkatu gaitu. Egungo egoera ikusita eta kuoten garestitasuna zela medio, argi zegoen **matrikulazioaren jaitsiera** emango zela eta, hori ekiditeko asmoarekin, buru-belarri jarri ginen gaierekin. Ikasturtean zehar bai **Partzuergoari zein Zuzendaritza Batzordeari hainbat proposamen bidali genizkien**. Ikasturte honetan ere, ildo beretik jarraituz, berdina egin dugu Zuzendaritza Batzordeko kideei eta gure esku dauden bide guztiak erabiliz.

Hau behin eta berriro errepikatu dugu, beraz, matrikulazioaren jaitsierak, zoritxarrez, ez gaitu harritu. Ikasturte honetako urrian, **iazko urtean baino 562 haur gutxiago** daude, Partzuergoak bidalitako datuen arabera.

Bestalde, 2013ko martxoaren 16an BOEn Raxoiren gobernuak ministro kontseiluan onartutako dekretua argitaratu zen, **pentsioen erreforma** berria delakoa. Dekretuak bi motatako neurriak ditu:

- **Zatikako jubilazioa** hartzeko baldintzak gogortzen ditu.
- 2019ko urtarrilaren 1a baino lehen 61 urte betetzen dituztenentzat **zatikako jubilazio aukera ahalbidetzen du baldintza batzuk betez gero** (gutxienez 33 urte eta 3 hilabeteko kotizazio-aldia, enpresan 6 urteko antzintasuna eta 61 urte eta hilabete bateko adina izatea).

Laburbilduz, legeak ematen dituen azken aukerak aprobetxatu behar dira, dekretu honetako 8. artikulua adierazten duen moduan. Enprekin zatikako erretiroari buruzko akordioak sinatzeko aukera egon zen zabalik martxoaren 31ra arte. **STEE-EILAS sindikatuak Haurreskolak Partzuergoarekin adostuta, gure kolektiboan dauden langile horiek 61 urterekin modu partzialean egungo baldintzekin erretiratzeko aukera izatea lortu genuen.**

Martxoan **Gasteizko hiru haur-eskola itxiko ziren berria** izan genuen. Hezitzaile eta denon borrokarekin bi bakarrik ixtea lortu zen. Oraingoan, enpresak jakinarazi digu 2014 urterako zenbait haur-eskola berri irekitzeko asmoa dagoela: Araban (Gasteizeko Mariturri), Gipuzkoan (Intxaurren eta Amara eta Zuloagako udal haur eskolen integrazioa) eta Gueñes Bizkaian Maiatza-

ren gan **Haurreskolak Partzuergoarekin lan hitzarmenaren ultraktibitatearen luzapena sinatu** genuen, hurrengoko bat sinatu arte, geneukana mantenduz.

Horrez gain, iazko ikasturte amaieran, enpresa **ordezkoen araudia dekretu bidez aldatzekotan zegoela jakin bezain laster, zuen guztion laguntzarekin geldiaraztea lortu zen.** Dena den, aurtan oraindik ez dakigu zer gertatuko den, nahiz eta gure asmoa negoziatzen jarraitzea den.

Uztailaren gan izan genuen bilera informatiboan, **Haurreskolak Partzuergoak liberatu sindikalak ordezkatuak ez izatea** eskatu zigun, gure ezezko boro-bila jasoz. Azkenean, ordezkatuak izan gara, baina ordezkoen zerrendaren hurrenkeraren bidez, hau da, ez dira orain arte egondako hezitzaile berdinak mantendu.

Aurreko ikasturtetik, Haurreskolak Partzuergoa hainbat ordezkapen kontratu desegokiak egiten hasi zen dirua aurreztu nahian. Maiatzetik, **kontratuetan irregulartasunak antzeman bezain pronto, STEE-EILAS sindikatuak kasu hau epaitegira eraman zuen,** ordezkoen lan baldintza eta eskubideak kaskartzen direlako. Haurreskolak Partzuergoak hanka sartu zuela ikusita, irailean akordio bat eskaini zigun.

Matrikulazio beherakada dela eta, urrirako **66 hezitzaile mugituak izan dira** beraien jatorrizko haur-eskolatik beste haur-eskola batera. Honek, ordezkoen kontratazioa nabari gutxitzea ekarri duelarik.


Beste alde batetik, **haur-etxeen kontua aipatuko dugu.** Proiektu honen amaiera 2013ko abendurako aurreikusten zen eta indarrean dagoen gobernuaren esku egongo da azken erabakia. **STEE-EILASetik inizatiba honen kontrako iritzia helarazi dugu,** bai prentsa-oharren bidez bai kontzentrazioak egiten ere. Orain egun batzuk prentsaren bidez haur-etxeak bertan behera geratuko direla jakin izan dugu, nahiz eta informazio hori ziurtatu ahal izateko oraindik dokumentu ofizial baten zain egon.

Amaitzeko, nahiz eta aurtan ere gai askoren gainean gauden, hauek dira STEE-EILAS sindikatuaren erronka nagusienak:

- **Mahai negoziatzailean guztion lan baldintzak defendatzen eta hobetzen jarraitzea.** 2013-2014 ikasturtean, enpresarekin hilean behin biltzea adostu dugu, puntuz-puntu lan hitzarmena hobetzeko. II. Titulutik hasi gara; momentu honetan beste gai batzuen artean, mahai gainean 13. artikulua da goelarik.
- Horrez gain, **matrikulazioa indartzeko** egin ahal dugun guztia egitea (eskaerak Zuzendaritza Batzordeari, Partzuergoari, hedabideetan presentzia eskatu...). Hau da aurtengo erronkarik zailena eta garrantzitsuenetariko bat.

Lan erreforma berriari gogor aurre egiteko lanean aritu garen moduan, etorriko diren eraso berriek ere ez gaituzte kikilduko. •

# Haurreskolak publikoak, doakoak eta unibertsalak!



## Haurreskolak

### Haurreskolak Partzuergoak 10 urte

2004an Haurreskolak Partzuergoa sortu zen, hainbat hezkuntza eragile kontra azaldu ginen arren. Garai hartan 0-3 publikoa izeneko plataformak **STEE-EILAS**, ELA, LAB, CCOO, EHIGE, Sarean eta Haur Eskolen koordinadora biltzen gintuen; plataforma horren bidez gogor salatu genuen Partzuergoaren sorrerak ez zituela asetzen sektoreko aldarriak. 10 urte betetzekotan hainbat kritika berretsi behar dugu eta, batez ere, erronka berriei aurre egin.

#### Haurreskolak Partzuergoaren izaera

Zuzendaritza organoen konposizioan aldaketa batzuk gauzatu badira ere, hasieratik Hezkuntza Sailaren pisa erabatekoa izan da beti partzuergoaren barruan, beraz, partzuergoaren sorrera hezkuntza sistema publikoari exijitzen zaizkion ezaugarri batzuk (eskaintza unibertsala eta doakotasuna) saihesteko aitzakia delakoan gaude. Haur hezkuntza osoa, beste etapak bezala, sailak zuzenean kudeatu behar duelakoan gaude. Orain partzuergoa desagerrarazteko aukera aipatzen ari da, ustez administrazioen bikoizketak ekiditeko. Ez dakigu zer asmo duten, baina sinesgaitza da pentsatzea nahi dugun bidetik joango direla; edozein kasutan balizko aldaketak plantila mantentzea eta handitzea ekarri behar du, kudeaketa arloan inor ez baitago soberan.

#### Haur eskolen bilakaera

Partzuergoak hasieran sortu zituen eskolak nagusiki herri txikietan kokatzen ziren, herri horietako udalekin adostuta, eta pixkanaka sarea hedatzen joan zen hiru lurraldeetan, oso modu desberdinean lurraldeen eta zonaldeen arabera. Eskola berriak sortzearekin batera aurretik existitzen zirenak bereganatzeari ere ekin zion, hala xurgatu zituen, besteak beste, udal batzuenak edota Gipuzkoako "historikoak", hainbat gorabehera tartean: 0-3 urteko zentroak zirenak 0-2ko bihurtu dira; Gasteizko sareak zituen lan baldintzak (lehen hezkuntzako maisu-maistrenak bezalakoak) kaskartu dira; 30 urteko hainbat espezializazio ez zen aintzat hartu...

#### Haurreskolak zifratan

Ikasturte honen hasieran 1.100 hezitzaile, 228 haur-eskola, 8.100 plaza eta 4.700 ikasle inguru; ikasturtean zehar zifra hauek guztiek gora egiten dute.

Eskolak zabalik 11ordutan, 11 hilabeteetan, egoten dira, baldin eta ume nahiko badago. Ume bakoitzak gehienez 8 ordu eman ditzake eskolan.

Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordea eta Asanblada: bietan EUDELe heren bat osatzen du, eta beste bi herenak Eusko Jaurlaritzak, azken horren ordezkartza ia osoa Hezkuntza Sailarena delarik, eta Enplegu eta Gizarte Politikena beste apurra.

**Langileak:** eskoletan Haur Hezkuntzako bi titulazio mota -Irakasle Eskolakoa eta Goi Mailako Lanbide Heziketa- onartzen dira, baina kategoria bakarra dago.

**Ume/gelako ratioak:** 0-1 urtekoentzat 8; 1-2 urtekoentzat 13; adin ezberdinak 10.



Gurasoen kuotak: 160/208 € hilero, 5 ordu/8 ordu egoteagatik, egokitze-aldian gutxiago.

### Ekarpenak

0-2 urtekoentzat sarea existitzeak eta ume askori eskolara joateko aukera emateak aldaketa sakonak bul-tzatu ditu jendartean, umeen ongizatea sustatzeare-kin batera etaparen aitortza hobetzen ari da, zaintza soil gisa hartzetik hezkuntza bezala ikustera pasatzen ari gara, astiro bada ere. Bestalde, aspalditik ez da berpiztu umeak amarekin egun osoa ematea aldarri-katzen duen diskurtso atzerakoia, egoera ekonomikoa oso latza izan arren.

Arlo pedagogikoan, inoiz baino esperientzia gehia-go egiten ari dira ziklo honetan, ikastetxe guztiek Hezkuntza Proiektua dute, langileen ordutegi barruan formazio ordu kopuru dezente islatuta dago eta haur eskola guztiak euskaldunak dira.

### Gabeziak

Gurasoen parte hartzea aurreikusita dago araudian, bai-na praktikan oso zaila da gehienez bi ikasturte emango dituztenak zentroaren martxan inplikatzeari; banakako hartu-emanak egunerokoak dira, baina horrek ez du ordezkatzen estamentu gisa egin beharrekoa.

Azpimarratzekoak dira kuotei eta planifikazioari lotu-ta dauden arazoak. Kuotek ikasle pobreak uxatzen di-tuzte, bekarako dirua ikasturtea amaituta ailegatzen baitzaie familiei. Iaz hasi zen matrikularen jaitziera eta aurten plaza asko hutsik geratu dira krisiaren era-ginez: matrikulazioa behera doa, eta jaiotze-tasa ere. Bitartean sare pribatuko plazak merkeago eskaintzen dira, ikastetxe horien autonomia (edo kontrol eza) eko-nomikoa dela eta. Planifikazioari dagokionez, sarea eratzeko moduak plaza falta sortu du zonalde batzue-tan, eta soberan besteetan; hala ere, hutsune larriena ondorengo mailekin lotura falta izango litzateke; Lehen Hezkuntzatik Bigarrenera pasatzean ikasleek “salto” egiten badute, sare publikoan haur hezkuntzaren ba-rruan gertatzen dena bidaia intergalaktikoa da, ez dago ibilbide formalik, ez dago inolako loturarik ikastetxeen artean, eta, askotan, bi urteko gelara iristean, ez daki-gu ea eskolako esperientziarik duten.

Azkenik, lan baldintzak ondorengo zikloetakoenetatik oso urrun daude: soldata urriagoak, lanordu gehia-go... eta gainera Hezkuntza Sailak hezkuntzako lan-gileak ez balira bezala tratatzen ditu, adibide gisa bi puntu: ordezkoen zerrendetan Partzuergoan egindako lana ez da kontuan hartzen, eta Garatu ikastaroetan parte hartzeko azkenak dira... bi kasuetan pribatuko langileen atzean doaz!!•

Zorionak  
Haurreskolak  
Partzuergoak  
10urte bete ditu



Haurreskolak



**Orain** dela pare bat urte, Haurreskolak Partzuegoan neurri berri bat hartzea erabaki zen, haur eskola bakoitzean egiten ziren erosketak guztien kontrola eta antolakuntza hobetu nahian, katalogo bat sortzea, hain zuzen ere. Legeak esaten duen bezala, lehiaketa publiko bat ipini zen martxan enpresa desberdinei euren produktuak aurkezteko posibilitatea emanez. Prozesu luze honen ostean, 2011-2012 ikasturterako ezagutzera eman zuten.

Katalogoaren hasiera ez zen batere ona izan, zalantza berberarekin jotzen baitzuten hezitzaile gehienek Eibarreko egoitzara: haur eskoletan materiala erosi nahi eta agortuta zegoela erantzuten zieten hornitzaileek. Bertako produktuak 230 haur eskola desberdinetan erosi ahal izateko aukera ez zen kontenplatu. Kasu hauetan, salbuespenik ez zen onartu Partzuegoaren partetik eta beraz, zentro askotan hilabeteak itxaron behar izan zituzten materialaren zain.

Horrez gain, katalogoan aurkezten diren jostailuak 0-2 urte bitarteko haurrentzako oso egokiak ez direla ere ez dute erreparatu lehiaketa publiko honetan azkenengo hitza izan dutenek. Adibide gisa, 0-1 adineko haurren atalean, 3 urtetik beherako haurrentzat gomendagarriak ez diren jostailuak saltzea onartu dela aipa dezakegu. Katalogoaren abiapuntua haurren segurtasuna izan dela behin baino gehiagotan azaldu digute, baina horrelako

kasuetan zalantzatan ipini ditzakegu aipamen horiek. Horren arian, katalogoan agertzen ez diren artikulak erosteko aukerarik ez dagoenez eta barietate handirik ez dagoen heinean, material bilduma hau nahiko eskas geratzen dela salatu dugu behin baino gehiagotan.

Arazo guzti hauek direla medio, Haurreskolak Partzuegoak iazko ikasturtean katalogo berritu bat plazaratzeko erabakia hartu zuen. Itxaroten egon gara eta 2013-2014 ikasturtea iritsi da, nola ez, katalogo barik. Hezitzaileen desesperazioa gero eta nabarmenagoa da, dokumentu hau baita erosketak egiteko erabili behar dugun oinarria. Hezitzaileen iradokizunak eskatu ditu Partzuegoak katalogoa hobetzeko asmoarekin, baina hezitzaileen alde-tik lana beteta dagoen arren, oraindik ilusio baten zain gaudela dirudi... •

*Aski da,  
katalogo berria  
orain!!*



# Estresak ahitzen gaitu

estresak ahitzen gaitu

formakuntza 2013-2014 ikasturtean

## ESTRESAK AHITZEN GAITU

Haur eskoletan lanean aritzen garenok ondo dakigu egunerokoak zer dakarkigun: ahotseko gaitzak (noduluak bakarrik daude onartuta laneko gaixotasun bezala), bizkarreko min eta lesioak, ikasleek kutsatzen dizkiguten gaitzak eta, batez ere, estresa.

Jakina denez, gure lanean bizkarrak asko sufritzen du, alde batetik, oraindik autonomia nahikorik ez duten haurren beharrak asetzen ditugulako. Bestalde, lankideen ordezkapenak betetzen ez diren bitartean, askotan erlojuaren presioa soinean daramagu eta guzti horrek, desegokiak diren posturak hartzera behartzen gaitu. Haurreskolak Partzuergotik, hezitzaileen min hauek saihesteko asmoarekin, irizpide batzuk bidali dituen arren, ez da nahikoa izan, ingurugiroan dauden faktoreen aldaketa ematen ez baita.

OMEk argitaratutako lan osasunaren inguruko gomendioetan (Espoo 1999), estresa langileen osasunerako arazo nagusienetakoa bat dela onartzen da. Estresatuta dagoen langile batek, gutxiago produzitzeaz gain, laneko segurtasun gutxiago ere izaten du.

Ez da estresa aipatzen dugun lehenengo aldia, garai honetan non murrizketak gai nagusi bihurtu diren, estresari buruz hitz egitea ezinbestekoa da. Ordezkapenak ez dira betetzen, mugimendu asko ematen ari dira ikasturte hasieratik hezitzaileen artean, ordezkoen zerrendak oso astiro mugitzen dira eta gainera, gaixotzeagatik zigortzen gaituzte (ezin dugu ahaztu soldataren kenketa galanta gaixorik egoteagatik). Gero eta handiagoa den lan zama honek estresa areagotzen baitu. Beraz, gure osasuna zaintzeaz ari bagara, zer gertatzen da estresarekin?

STEE-EILASen gure langileriaren estresa prebenitzeko modu asko dagoela uste dugu, baina neurri guztiek errekurtsuen igoera behar dute. Horretarako, jasaten ari garen murrizketen politika hau salatzen eta Departamentuari ez babes-teko exijitzen jarraituko dugu.

## FORMAKUNTZA 2013-2014 IKASTURTEAN

Ikasturte honetan ere iazkoan bezalako formakuntza eredu berdina eramango da aurrera Haurreskolak Partzuergoan. Prozesua jada hasi da eta dinamizatzaile taldea osatuta dago.

Aurreko ikasturtetik 4 dinamizatzailek jarraitzea erabaki zuten eta beste bi egoteko beharra zegoenez, enpresak deialdi baten bidez hautaketa prozesu bat burutu du. Beraz, guztira 6 hezitzailek, jardun osoan, osatuko dute Barrutik taldea. Hau da lurralde bakoitzeko dinamizatzaile kopurua eta beraien lantokia:

- Arabian 2 ( Gasteizko Virgen Blanca haurreskola)
- Bizkaian 2 (Bilboko Miribilla haurreskola)
- Gipuzkoan 2 (Pasaiaiko haurreskola)

Barrutik dinamizatzaileez gain, proiektu batzuk kanpo enpresa batzuen bidez eramango dira aurrera, iaz gertatu zen bezala. Kanpo enpresa horiek lehiaketa publiko baten bidez hautatuak izan direlarik.

Haurreskolak Partzuergoko Hezkuntza Proiektu Orokorren barnean hezkidetzaren proiektua garatuta dago eta berdintasun gaia proiektu guztietan jorratuko da. Bestalde, aurreko haurren garapenari jarraipena emateaz gain, familia arloari ere garrantzia eman nahi zaio bere osotasunean.

Amaitzeko, aurreko ikasturtean gertatu zen bezala, aurreko eredu haur-eskolei euren proiektu propioak bultzatu eta lantzeko aukera emango zaie. Gai oso interesgarriak atera daitezke iniziatiba honetatik eta, horrez gain, errealitatearekin lotura nabarmenagoa lortu daiteke gure haur-eskola beraren ingurugiroan oinarritzen bagara.



## Indarkeria sexistari aurre egiteko **HEZKIDETZA da bide bakarra**

Lehenik eta behin adierazi nahi dugu pozgarria izan dela guretzat Eusko Jaurlaritzak “Berdintasuna eta genero indarkeriaren prebentzioa” (guk nahiago indarkeria sexista, genero indarkeria baino) modu integralean landu nahi duela entzutea.



**Zoritxarrez eta, ohikoa den moduan, komunikabi-deen bitartez izan genuen berria.** Horrela ere “generoa eta Gizarte aldaketarako” ikasgai berria ezarriko dela jakin dugu. Plan estrategikoaren zirriborroaren aurkezpena egin zenean hain zuzen ere. Gure kezka adierazi eta gero zirriborroa luzatu digute ekarpenak egin ditzagun. Hezkuntza Sailak berdintasun batzordea izanda, non sindikatuak ere parte hartzen dugun, oso ulergaitza egiten zaigu horren garrantzia duen gaia tratatzeko aurretik bilerarik ez deitzea.

**STEE-EILAS**en hezkuntza eragile garen heinean, eman den trataera ezin dugu ulertu eta hainbat kezka sortzen digu.

Alde batetik, ikastetxe guztietan hiru orduko baime-na izango duen hezkidetza arduradun bat izendatuta izango da. Bigarren Hezkuntzako kurtso hasierako ebazpenean dio, programa aurrera eramateko izendatuko den irakasleak bere 3 zaintza orduak horretarako erabiliko dituela, baldin eta ikastetxearen antolaketak ahalbideratzen badu. Haur eta Lehen Hezkuntzako ebazpenean, aldiz, ez da ezer aipatzen honetaz. Ikastetxearen ordu kreditua erabiliko da ziur aski eta ez zaigu bidezkoa iruditzen lan zama handitzea baliabide gehiagorik gabe. **Nekez uler daiteke horrelako plana sakonki aurrera eraman nahi bada zergatik ez diren ezohiko baliabideak eskaintzen ikastetxeetan.**

Beste aldetik, plana era egokienean aurrera eraman ahal izateko prestakuntza ezinbestekotzat jotzen dugu. Guk dakigula planifikazio bileretan horretaz ez da hitz egin eta ikasturte hasierako ebazpenetan ez da inon kontenplatu. Garatu plana aztertuz gero ikus dezakegu Hezkidetza gaia tratatzen duten ikastaroen kopurua 1. txandan %8a baino ez dela eta 2.ean %7,5a.

Genero berdintasuna eta sexu aniztasuna aspaldiko ardura eta kezka dira **STEE-EILAS** sindikatuarentzako eta ikastetxeetan landuak izan daitezela gure lehentasunetarikoa bat da. Dakizuen bezala, urtetan zehar karpeta bat

eratu dugu non eskola eta institutuetan berdintasuna eta aniztasunaren gaia lantzeko ikas unitate eta jardueren proposamen anitzak dauden. Hori dela eta, Hezkuntza Sailean behin eta berriro salatu dugu gai honen inguruan eman diren atzerapausoak.

Bukatzeke, ezin dugu ahaztu Legeen zein Emakundek emandako aholku guztien kontra, gaur egun, **mantendu eta finantzatu egiten direla diru publikoarekin sexu araberako banaketa egiten duten ikastetxeak; neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Ez al da hau bereizkeria?**

Hala ere plana ahalik eta lasterren martxan jartzea, beharrezkoak diren baliabideak jarriz, eta eskola komunitate osoak parte hartzea espero dugu.●



## Siriako interbentzioari ez



**STEE-EILAS** sindikatua Estatu Batuek eta bere lagunek egin nahi duten interbentzio militar inperialistaren aurka agertzen da. Argi dugu herrialde hauek interbentzio militarrekin ez dutela nahi Siriako herria defendatu eta demokrazia ezarri. Errusiak, Txinak eta Iranek, aldiz, gertatzen ari den masakrearekin eta exodoari bizkarra eman diote.

**Siriako** konfliktoan alde batekoak, Estatu Batuek eta bere akolitoak, eta besteak, Errusia, Iran eta Txina, benetan nahi dutena hau da: kontrol eta botere eremuarekin jarraitzea, bakoitzak duen eta bere lagunek duten influentzia esparrua handitzea eta bere interesen kontra doan taldea zigortzea.

Siriako herria altxatu zenean askatasuna eta justizia soziala aldarrikatzen zuten era baketsuan; Siriako erregimenak Al Assaden eskutik errepresio gogorarekin erantzun zuten elkarrizketarako aukerak saihestuz eta Siria suntsituta utziz. Sirian gertatzen denaren errudun nagusia Bachar Al-Assad dela argi dago baina egungo egoerak nahasmen handia sortu du. Egoera korapilatsu honetan, nork borrokatzen du demokrazia eta justizia sozialaren alde?

Garbi dugu arma kimikoen gaia astakeriaren adierazle argia dela, baina harrigarria da hauekin hildakoen (%1a inguru) aferak besteekiko biktimen guztiz tratara desberdina izatea, jakinda guztira 100.000 pertsona baino gehiago hil direla guda hasi zenetik.

Estatu Batuen eta bere aliatuen arrazoi nagusia Sirian sartzeko arma kimikoak dira?

Zergatik orduan ez ziren sartu Palestinan “plomo fundido” delako atakean israeldarrek arma kimikoak erabili zutela dakigunean?

Non daude Iraq-eko suntsiketa handiko armak, horren froga handiak zutelarik? Eta Al-Assadek arma kimikoak erabili dutenaren frogak Iraqekoak bezalakoak dira?


**STEE-EILAS**etik interbentzio inperialistaren guztiz kontra agertzen gara baina aldi berean ere salatu nahi dugu Siriako erregimenak bere herriaren kontra egin dituen sarraski guztiak.

Estatu batuetako militarrek sartzten badira Sirian ez da legala izango, ezta zilegi ere, eta herriaren sufrimendua areagotzea baino ez du ekarriko. Siriako herria da diktadorearengandik askatu behar dena eta interbentzio militar honek ezingo lioke Siriako herriari lagundu eta bere ondorioak beti izango lirateke herriak hasi zuten iraultzaren kontrakoak. •

# ALTXORRAREN BILA:

non daude ordezkooak?

HEMEN ZAUDE



[www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org)

**Araba** Eulogio Serdán 5  
01012 Gasteiz  
☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02  
araba@stee-eilas.org  
UPV/EHU Elurreta  
Ikasgelategia, 204. Bulegoa  
01006 Gasteiz  
☎ 945 01 33 97  
stee-eilasa@ehu.es

**Bizkaia** Nikolas Alkorta 3,  
lonja 13 Zabalburu  
48003 Bilbo  
☎ 944 10 02 98 ☎ 944 10 13 60  
bizkaia@stee-eilas.org  
UPV-EHU Leioako Campusa  
Gizarte Arloko Eraikina  
48940 Leioa  
☎ 94 601 52 87 ☎ 94 601 24 34  
lvzeilas@lg.ehu.es

**Gipuzkoa** Basotxiki 30-34 atz.  
20015 Donostia  
☎ 943 46 60 00 ☎ 943 45 36 27  
gipuzkoa@stee-eilas.org  
UPV-EHU Gipuzkoako Campusa  
Ignacio M<sup>a</sup> Barriola eraikina  
Elhuyar Plaza 1  
☎ 943 01 84 36 ☎ 943 01 81 40  
sczeilas@sl.ehu.es

**Nafarroa** Joaquin Beunza, 4-6 behea  
31014 Iruñea  
☎ 948 21 23 55 ☎ 948 22 97 90  
nafarroa@stee-eilas.org

**Egoitza Berria!**